





10. GAIA: ZUZENEKO SOINUAREN GRABAKETA

10. GAIA

1

I. ZUZENEKO SOINUAREN GRABAKETA

II. GRABAKETA BAT HASI AURRETIK
KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

III. GRABAKETAN ZEHAR KONTUAN HARTU
BEHARREKOAK

IV. ZUZENEKO SOINUAREN
GRABAKETARAKO BEHARREZKOA DEN
MATERIALA

V. GRABAZIOAN ZARATAK EKIDITEKO
MODUAK

Produkzio mota bakoitzak enfoke tekniko-estetiko desberdin bat behar du.

Grabazio bakoitza hasi aurretik gidoia ondo aztertu beharko dugu, honek zuzeneko soinuako aukera desberdinak aurreikusteko aukera emango baitugu.

Film luze bateko gerra eszena batek edo telebistarako kaleko elakrriketa batek beharko duten soinuaren tartamendua oso desberdina izango da.

I. ZUZENEKO SOINUAREN GRABAKETA

- Zuzeneko soinua grabatzea, postprodukzioan birsortu ezin daitezkeen eta eszena bat iradokitzen duten soinu elementu guztiak argitasunez eta banadurik jasotzea da.
- Zuzeneko grabazian jaso beharko ditugun soinua elkarrizketak eta lokalizazio bakoitzarenak, propiak, diren soinu bereziak dira batez ere.

II. GRABAKETA BAT HASI AURRETIK KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Soinuaren tratamendurako eta grabazioaren beharrak zehazteko gidoiaren azterketa sakona egin.
- Soinuaren ikuspegitik lokalizazioa aztertu : inguruan lanak dauden edo trafiko, gneratzaile, hozkailu, zaunkak edo bestelako soinuak hurbil dauden jakin. Grabaketan eragin dezakeen edozein soinu aztertu beharra dago.
- Beharrak zuzendaritza eta produkzioarekin adostu.
- Materiala prestatu.

III. GRABAKETAN ZEHAR KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Elkarrizketak grabi grabatu, hondoko bestelako soinurik gabe..
- Giro soinuaren edota lokalizazioaren berezko soinuen laginak hartzea garrantzitsua da.
- Ordenatuak eta metodikoak izan beharra dugu. Ezinbestekoak dira parteak bete eta soinu oharrak jasotzea (hartze onak zeintzuk diren, arazoak sor ditzaketen soinuak...).
- Zentzu berean, protokoloak eta errutinak betetzea ezinbestekoa da. Materiala jasotzea, grabazioa eta atsedanak...

- Egon daitezkeen zaratak bereziki zaindu eta ezagutu beharko ditugu. Postprodukzioan zaratak kentzeko modurik ez dago, leuntzeko bakarrik. Ez dago ez programa ez plug-in magikorik. Zuzeneko soinua beti ahalik eta garbiena izan behar du.
- Kaskoen gehiegizko bolumena ere zaindu beharra dago. Gure burua engainatzen ibilko gara eta soinu mailaren erreferentzia garbirik ez dugu izango.

IV. ZUZENEKO SOINUAREN GRABAKETARAKO BEHARREZKOA DEN MATERIALA

- Mikrofono nagusi bat edo gehiago, eta arropren artean ondo ezkutatzeko moduko har gabeko mikrofono bat edo gehiago.
- Pertiga bat edo gehiago.
- Preamplifikazioarako eta nahasketarako iturri bat, audioa nahasteko mahai eramangarri bat edota mikrofono sarrerak eta ganantzia manuala duen kamera bat.
- Multipista grabagailu bat. Kameraren audio pistetan ere grabatu ahal izango dugu, beti ere produkzioaren klonpexutasunaren arabera.

- Monitorizazio sistema bat (aurikularrak). Kalitatezkoak izan behar dute. Aurikular eskas batzuk oinuaren erreferentzia txarra emango digute eta arazoak eman dezake ondorengo prozesuetan.
- Kableak.
- Osagarriak: konektoreak, zinta itsasgarriak...

V. GRABAZIOAN ZARATAK EKIDITEKO MODUAK

- Soinu iturriak identifikatu eta ezabatu. Esaterako, grabatzen ari garen tabernako arguradunari musika kentzeko edo hozkailuak itzaltzeko eskatu, lanak denbora baterako gelditzeko eskatu edota trafikorik entzun ez dadin, kaleak itxi.
- Lokalizazioetako barrualdeak oihal edo tapakiekin babestu. Zoluak alfonbrekin estali ditzakegu, pausuen soikua ekiditeko.